

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
Gizarte Gaietako Sailburuordetza
Gizarte Ongizateko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Bienestar Social

***EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IJITO
HERRIAREN ERABATEKO SUSTAPENERAKO
ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO
KONTSEILUA.***

2004KO JARDUNEN MEMORIA

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. KONTSEILUAREN ERAKETA	4
A) KONTSEILUAREN JATORRIAK	4
B) 289/2003 DEKRETUA	4
C) KONTSEILUAREN OSAERA	6
3. KONTSEILUAREN BILERAK	8
A) OSOKO BILKURAREN BILERAK	8
B) BATZORDE IRAUNKORRAREN BILERAK	9
C) IJITO BATZORDEAREN BILERAK	12
4. IJITO HERRIAREN ERABATEKO SUSTAPENERAKO ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO EUSKAL PLANA	14
1. EAE-KO IJITO HERRIAREN EGOERAREN AZTERKETA	14
2. AZKEN XEDEAK ETA HELBURU OROKORRAK	15
3. BERARIAZKO HELBURUAK ETA JARDUNAK, EREMUEN ARABERA..	15
4. EBALUAZIOA	16
5. IDAZKARITZA TEKNIKOA	17
A) AURKEZPENA ETA LAN PROGRAMA	17
B) EGINDAKO EKINTZAK.....	19

1. SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluak 2004. urtean egindako lana islatzeko asmoa du Memoria honek. Hala ere, aurreko urteetan garatutako lanari lotutako zenbait alderdi ere jasotzen ditu. Izan ere, Kontseilua formalki 2004ko otsailean osatu arren, alde aurreko lan baten emaitza eta jarraipena da, eta Memoria honetan ezin dugu ahaztu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua sortzen duen azaroaren 25eko 289/2003 Dekretuak ijitoek gainerako herritarren aldean bizi duten **ezberdintasun-egoera nabarian** oinarritzen du **aholkularitza-organo berri** horren sorkuntza. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak *Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluaren* (aurrerantzean, sinplifikatzearen, *Ijito Herriaren Kontseilua*) sorkuntza sustatu du, **partaidetzarako eta elkarrizketarako bide** gisa, eta ijitoen nahiak eta eskariak, eta ijitoen erabateko sustapena bultzatzera bideratutako proposamenak jasotzeko aukera emango duen tresna gisa, era horretan Administrazioaren jardunen plangintza egitean partaidetza soziala, kontsulta, informazioa eta aholkularitza ahalbidetzeko, bai eta ijitoak eraginpean hartzen dituzten gaietan jardun horien jarraipena ahalbidetzeko ere.

Gizarte-eragileen, ijitoen eta ijitoen aldeko elkarte eta erakundeen, herri-erakundeen eta herri-administrazioen arteko gogoetarako eta koordinaziorako gunea izan nahi du *Ijito Herriaren Kontseiluak*, **ijitoen erabateko sustapenean** eta **ijitoen kulturaren defentsan eta sustapenean** konprometitutako alderdi guztien artean lan eraginkorra lortzeko.

Adierazitako Dekretuak dioen bezala, Kontseiluko partaidetza zuzendu behar duen printzipio nagusietako bat **gizartearen elkarbizitza harmonikoa** lortzea da, tresnak, jarrerak eta alternatibak garatzeko aukera emango duten neurriak proposatuz, kultura ezberdineko pertsonen eta kulturen arteko elkarbizitzak gizartea aberastu dezaten, eta gizartea aktiboa eta askotarikoa izan dadin. Ijito herriaren nortasuna eta haren kulturaren balioa, eta guztion gizarte honi egin dizkion ekarpenak aitortuz, eta ahalegin guztiak modu koordinatuan uztartuz soilik egin ahal izango dugu aurrera **gizalegezko herritartasun** kontzeptuari **herritartasun arduratsu** esanahia ematea lortu arte, hau da, eskubideak eta betebeharrak dituzten herritarrek osaturikoa, edozein kultura dutela ere.

2. KONTSEILUAREN ERAKETA

A) KONTSEILUAREN JATORRIAK.

Arestian adierazi bezala, topaketarako, gogoetarako eta lanerako gunea zena erregularizatu du *Ijito Herriaren Kontseiluaren* eraketa formalak, eta gune horri arau-euskarria, euskarri funtzionala eta organikoa eman dio. Adierazitako gunea Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ekimenez hasi zen **2002ko ekainean**, ijitoen komunitatearen sustapenean aurrera egiteko, betiere ijitoen nortasuna eta kultura errespetatuta.

Urtebete inguruko aldi, 2002ko ekainetik 2003ko martxora bitartean hain zuzen ere, hainbat bilera egin ziren eta, laburbilduta, honako alderdi hauek landu ziren bertan:

- **lehentasunezko intereseko eremuak** definitu ziren; eremu horiek, hasieran, etxebizitza eta hezkuntza lortzeko aukerari, eta lan-munduan eta gizartean txertatzeko aukerari lotuta zeuden eta, geroago, adingabeekiko esku-hartzeari, kultur nortasunaren aitopenerari, diskriminazioaren kontrako jardunari eta partaidetza sozialaren sustapenerari lotutako beste batzuekin osatu ziren.
- eremu horietako esku-hartzeak zuzentzeko zenbait **printzipio** ezarri ziren: integritasuna, zeharkakotasuna, partaidetza, kulturartekotasuna, sentsibilizazioa, errespetua eta herritartasun unibertsala, besteak beste.
- EAEko ijitoen komunitatearekiko **lurralde-ezberdintasunak** eta foru- eta toki-administrazioen beharrezko esku-hartzea (haien erantzukizun-eremuen eta dauden lurralde-errealitateekiko hurbiltasunaren arabera) aitortu ziren.
- pixkanaka, **erakundeen beste ordezkari batzuk** sartu ziren; horrela, beraz, hasieran Eusko Jaurlaritzaren zenbait Sailek hartu zuten parte eta, pixkanaka, Foru Aldundiak, Eudel eta Emakunde txertatu ziren. Prozesuan beste erakunde batzuek ere parte hartu zuten, hala nola Arartekoak eta Lan Harremanetako Kontseiluak. Horiek, arrazoi ezberdinak aipatuta, beharrezkoa den laguntza emateko prest agertu ziren, baina agerpen egonkorrik ez izatea erabaki zuten.
- hasieran foro zenari egonkortasuna era **erakunde-euskarria** emateko esparru bat finkatu zen, eta foro hori Kontseilu bihurtu zen. Lehen jardunen artean, ijitoen komunitatearentzako politika aktibo integralak definitzeko aukera emango zuen Plan bat lantzea finkatu zen, jarraitutasun-ikuspegiarekin eta etorkizunari begira.

B) 289/2003 DEKRETUA

Azaroaren 25eko 289/2003 Dekretuak *Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua* arautzen du, eta gizarte-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailari atxikita uzten du.

Kontseilua **aholkularitza-organo plurala** da, eta honako xede hau du: **ijitoekiko erabateko politika aktiboa** garatzen laguntzea, ijitoen erabateko sustapenean

oinarrituta. Kontseiluan, euskal herri-administrazioekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuz kanpoko erakundeek eta ijitoen eta ijitoen aldeko elkarteek hartuko dute parte.

Kontseiluari esleitutako **funtzioak** honako hauek dira:

1. **Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei aholku ematea**, Euskal Autonomia Erkidegoko ijitoen erabateko sustapenerako neurriei buruz, beste administrazioen eskumenen bidezko erabilerari zor zaion errespetua bermatuz.
2. Ijitoen eta gizartearen artean **iritzien eta informazioen komunikazioa eta trukea sustatzea**.
3. Ijito herriarekin lanean edo/eta ezberdintasunak gainditzen diharduten **gizarte-erakundeen eskaerak eta proposamenak bideratzea**, ijito herritarren eta gizarte osoaren arteko elkarbizitza eta kohesioa errazteko.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek ijito herriari dagokionez **garatzen dituzten arauak, programei eta jardueri buruzko informazioa biltzea**, eta **horien jarraipenean eta garapenean laguntzea**, informazio hori beste autonomia-erkidegoetako eta nazioarteko komunitateko arau eta jarduerekin zabalduz, betiere beste administrazio horien eskumenen bidezko erabilerari zor zaion errespetua bermatuta.
5. **Herri-administrazioei proposamenak eta gomendioak egitea**, ijito herriaren erabateko sustapena lortzeko; eta, era berean, ijitoei eta beren erakundeei proposamenak eta gomendioak egitea, eragileekin eta herri-administrazioekin harremanak eta koordinazioa errazteko.
6. **Ijito herriaren erabateko sustapenari lotutako proiektuen eta programen inguruko azterketak edo ekimenak ahalbidetzea**, eta ijito herriarekiko elkarbizitzarako sentsibilizazio-ekimenak bultzatzea.
7. Giza eskubideen alde lan egiten duten **antzeko kontseiluekin eta erakundeekin koordinatzea eta, hala badagokio, lankidetzan aritzea**.
8. Ijitoen erabateko sustapenaren arloan **nazioz gaindiko erakundeek emandako gomendioak behar bezala betetzeko neurriak proposatzea**.
9. Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Planak esleitzen dizkion eta haren aplikaziotik dagozkion gainerako funtzio guztiak, bai eta euskal erakundeek eta administrazioek ijito herriaren erabateko sustapena errazteko agintzen dizkietenak ere.

C) KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAREN OSAERA

Ijito Herriaren Kontseiluak Osoko Bilkuran eta batzordeen bidez (Lan Batzordearen edo Batzorde Iraunkorraren bidez) jardungo du.

Kontseiluaren Osoko Bilkura, organo paritario eta formal gisa, 32 kidek osatzen dute: kontseiluburuak, 30 kontseilukidek eta idazkariak (azken horrek hitza bai, baina botorik ez du izango). Dekretuak ezartzen duenez, eta azpimarratu beharrekoa da, Kontseiluaren eta horren organo guztien baitan **gizonezkoek eta emakumezkoek proportzio bereko partaidetza** izatea sustatuko da.

Kontseiluburu izatea gizarte-gaien arloan eskumena duen Sailaren buruari dagokio, eta, hortaz, 2004. urtean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari egokitu zaio kargua.

Kontseiluburuordearen kargua, berriz, gizarte-erakundeek izendatuta, Gao Lacho Drom elkartearen buruari egokitu zaio 2004. urtean.

Hogeita hamar kontseilukideei dagokienez, horietako hamabost **EAEko Autonomia, Foru eta Toki Administrazioen** ordezkariak izan dira. Honela banatu dira:

- Bi kontseilukide Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkariak izan dira.
- Kontseilukide bat Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren ordezkaria izan da.
- Kontseilukide bat Osasun Sailaren ordezkaria izan da.
- Kontseilukide bat Kultura Sailaren ordezkaria izan da.
- Kontseilukide bat Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkaria izan da.
- Kontseilukide bat Herrizaingo Sailaren ordezkaria izan da.
- Kontseilukide bat EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearen ordezkaria izan da.
- Kontseilukide bat Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria izan da.
- Kontseilukide bat Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria izan da.
- Kontseilukide bat Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria izan da.
- Lau kontseilukide EAEko Udalen ordezkariak izan dira. 2004. urtean, Sestao, Bermeo, Eskoriatza eta Gasteizko Udalak izendatu ditu EUDELeK.

Horiek guztiak sailburuordeak, zuzendariak edo antzekoak dira, 289/2003 Dekretuak ezarritakoari jarraiki.

Gainerako hamabost kontseilukideak Kontseiluan parte hartzea eskatu duten **ekimen eta partaidetza sozialeko erakundeen** ordezkariak dira. Nolanahi ere, **antolatuta dagoen ijitoen komunitatearen baitan sortutako erakundeek lehentasunezko ordezkari**tzaz dute beti. Ildo horretan, erakunde horiek % 80ko ordezkarietza dute, hau da, hamabost kontseilukidetik hamabi; gainerako % 20ko ordezkarietza, berriz (hau da, hiru kontseilukide), ijitoen aldeko erakundeentzat da.

2004. urtean, honela banatu da ordezkarietza:

- Hiru kontseilukide Gao Lacho Drom elkartearen ordezkariak izan dira.
- Hiru kontseilukide Iniciativa Gitana elkartearen ordezkariak izan dira.
- Bi kontseilukide Kamelamos Adiquerar elkartearen ordezkariak izan dira.
- Bi kontseilukide Kalé Dor Kayikó elkartearen ordezkariak izan dira.
- Bi kontseilukide Barakaldoko Ijitoen Elkartearen ordezkariak izan dira.

- Kontseilukide bat Adarra kolektibo pedagogikoan barne hartutako Enseñantes con Gitanos izeneko taldearen ordezkaria izan da.
- Kontseilukide bat Donostiako Caritas erakundearen ordezkaria izan da.
- Kontseilukide bat Secretariado General Gitano fundazioaren ordezkaria izan da.

3. KONTSEILUAREN BILERAK

A) OSOKO BILKURAREN BILERAK

Kontseiluaren Osoko Bilkurari dagokio, **mailarik goreneko organoa** denez gero, 289/2003 Dekretuak Kontseiluari esleitzen dizkion funtzioak hobeto betetzeko eta helburuak lortzeko Kontseiluaren gainerako organoek helarazten dizkieten erabaki eta proposamen guztiak aztertzea eta, hala badagokie, berrestea. 2004. urtean, bi bilera egin ditu Osoko Bilkurak. Jarraian, horien edukiaren berri emango dugu gaingiroki.

Kontseiluaren Osoko Bilkuraren 1. bilera. (2004ko otsailaren 23an)

Bilera honetan, *Ijito Herriaren Kontseilua* **ofizialki eratu da**, eta 289/2003 Dekretuan ezarritako prozedurari jarraiki izendatutako **kide guztien aurkezpena** egin da.

Halaber, orain arte Batzorde Iraunkorrak landu duen **Planaren hirugarren zirriborro osoa** aurkeztu eta eztabaidatu da, eta **beste eragile batzuen artean sozializatzea eta zabaltzea** erabaki da, Plana lantzeko prozesuan parte hartu ez duten erakundeek eta/edo pertsonen ekarpenak jasotzeko. Erabaki horren ondorioz, lan-zirriborroa honako hauei bidaliko zaie, besteak beste: UPV-EHUren eta Estatuko beste unibertsitate batzuen hainbat saili, sindikatuei eta ingurune soziolaboraleko beste eragile batzuei, Estatuko ijitoen erakundeei eta ijitoen aldekoiei, eta Lurralde Historikoetako profesionalen elkargoei eta elkartei.

Bilera honetan, bestalde, *Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoa abian jartzeko prozesua* **hastea** erabaki da. Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren teknikariak falta direnez gero, komenigarritzat hartu da **kanpoko erakunde batera jotzea** Kontseiluaren asistentzia tekniko eta Planaren inplementazioaren jarraipena eta ebaluzioa bere gain har ditzan.

Kontseiluaren Osoko Bilkuraren 2. bilera. (2004ko ekainaren 21ean)

Bilera honetan, arestian aipatutako sozializazioaldiaren ondoren jasotako ekarpenak biltzeko eta aztertzeko prozesua amaituta, *Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Plana onartu da* (aurrerantzean, *Ijito Herriaren Plana*). Aurrerago, Jaurlaritzaren Kontseilura eramango da.

Bestalde, jakinarazi da Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailak **Idazkaritza Teknikoa abian jartzeko** mekanismoa martxan jarri duela, eta, gaia lehenbailehen ebatz dadin eta Idazkaritza lehenbailehen eraginkorra izan dadin, ijitoen elkarteek proposatutako lau erakundeei beren proposamenak aurkezteko **baldintza-orrria** (ijitoen erakundeei kontrastatutako **balorazio-irizpideak** barne hartuta) laster bidaliko zaiela.

Halaber, **batzordeak** Plana abian jartzen den heinean eratzea eta, oraingoz, Planak aipatzen duen **Batzorde Iraunkorra** eta ijitoen erakundeek osatutako Batzordea (aurrerantzean, **Ijito Batzordea**) besterik ez osatzea erabaki da.

B) BATZORDE IRAUNKORRAREN BILERAK

289/2003 Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriak, Kontseiluarentzako lehen mandatu gisa, Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Plana lantzea ezartzen du. Eginkizun hori, **Osoko Bilkurak eskuordetuta**, bertatik sortutako Batzorde Iraunkorrak hartu du bere gain.

Prozesuak **2003ko apiriletik 2004ko maiatzera bitartean** iraun zuen eta, guztira, goiz osoko lanaldiko 9 lan-bilkura egin ziren. Horretarako, prozesua dinamizatzearaz, azterketarako elementuak emateaz, lan-testuak lantzeaz, ekarpenak bateratzeaz eta abarrez arduratutako **kanpoko aholkulari** baten laguntza izan zen.

Jarraian, Batzorde Iraunkorraren bileren edukia aurkeztuko dugu gaingiroki.

Batzorde Iraunkorraren 1. bilera. (2003ko apirilaren 1ean)

Ijito Herriaren Plana lantzeko **kanpoko aholkulariaren eta dauzkan funtzioen aurkezpena** egin da.

Aholkulariak “Nola landuko dugu Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Planaren proposamena?” dokumentua aurkeztu du, eta bertaratutako guztiek dokumentu horri buruz eztabaidatu dute, *Ijito Herriaren Plana* idazteko **aho batez onartutako prozedura** bat adosteko.

Batzorde Iraunkorraren 2. bilera. (2003ko maiatzaren 13an)

“Nola landuko dugu Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Planaren proposamena?” dokumentuaren azken bertsioa onartu da. Lortu nahi diren honako helburu hauek jasotzen ditu dokumentuak:

- Proposamena lantzean ahalik eta pertsona eta erakunde interesatu gehienek parte hartzea (**ekarpenik egin dezakeen inor prozesutik kanpo ez geratzea**).
- Plana lantzeko prozesua **bizkorra eta praktikoa** izatea.
- Lan-prozesua bera, neurri batean, **pertsona guztien arteko berdintasunean aurrera egiteko** baliagarria izatea.
- Egin beharreko lana parte hartuko duten **elkarteen eta erakundeen arteko harremanak estutzeko** baliagarria izatea.
- Plana lantzeko lana **ikasteko prozesu bat** izatea bertan parte hartzen duten pertsona guztientzat (erabakiak hartzean, parte hartzean, beste pertsona batzuegana irekitzean eta abar).

Ijito Herriaren Planaren lehen zirriborro partziala aurkeztu eta lantzen hasi da, Planaren 1. puntuan oinarrituta (“Ijito Herriak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoerari buruzko azterketa”).

Batzorde Iraunkorraren 3. bilera. (2003ko ekainaren 10ean)

Ijito Herriaren Planaren bigarren zirriborro partziala aurkeztu eta berrikusi da, Planaren 1. puntuan (“Ijito Herriak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoerari buruzko azterketa”) eta Planaren xede orokorretan, ardatz estrategikoetan eta helburuetan oinarrituta.

Batzorde Iraunkorraren 4. bilera. (2003ko uztailaren 8an)

Ijito Herriaren Planaren hirugarren zirriborro partziala aurkeztu eta berrikusi da, Planaren 1. puntuan (“Ijito Herriak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoerari buruzko azterketa”) eta Planaren xede orokorretan, ardatz estrategikoetan eta helburuetan oinarrituta.

Planaren gaiak ijitoen erakundeen eta ijitoen aldekoen artean **banatzea** erabaki da, sakonago lantzeko. Gaiak honela banatu dira:

- Kalé Dor Kayiko elkarteak: hezkuntza eta kultura.
- Gipuzkoako Caritas: gizarte-zerbitzuak eta etxebizitza.
- Secretariado General Gitano Fundazioa: lan-munduan eta gizartean txertatzea.
- Gao Lacho Drom elkarteak: osasuna eta gizarte-elkarbizitza.
- Iniciativa Gitana elkarteak: justizia eta partaidetza soziala.
- Kamelamos Adikerar elkarteak: nahi dituen alderdiak.
- Barakaldoko Ijitoen Elkarteak: nahi dituen alderdiak.

Batzorde Iraunkorraren 5. bilera. (2003ko urriaren 14an)

Ijito Herriaren Planaren lehen zirriborro osoa aurkeztu eta berrikusi da, Planaren 1. puntuan (“Ijito Herriak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoerari buruzko azterketa”) eta Planaren xede orokorretan, ardatz estrategikoetan eta helburuetan oinarrituta.

Batzorde Iraunkorraren 6. bilera. (2003ko azaroaren 4an)

Ijito Herriaren Planaren lehen zirriborro osoaren berrikuspenera osatu da, aurreko bileran aztertu gabeko alderdiekin.

Batzorde Iraunkorraren 7. bilera. (2003ko abenduaren 9an)

Bilera honetan, Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Planaren **lehen zirriborro osoa** lantzen jarraitu da, aurreko bi bileretan aztertu gabeko alderdietan.

Zazpigarren bileraren ondorengo aldian Batzorde Iraunkorrak onartutako testu-proposamena hainbat eragile eta erakunderi helaraztea erabaki da, honako helburu hauekin:

- **Kontseiluan parte hartzen duten erakunde eta elkarte** guztiei, beren baitan eta ingurunean **Planaren zirriborroari buruzko iritziak** eta, ahal bada, **proposamenak** bil ditzaten.
- **Kontseiluan parte hartzen ez duten hainbat eragile eta erakunderi, Planaren zirriborroari buruzko iritziak** eman eta, ahal bada, **proposamenak** egin ditzaten.
- **Planean ardurak esleituta dituzten erakunde eta elkarte** guztiei, Planaren barruan egin behar dituzten jardunen **balorazio ekonomikoa** egin dezaten eta, ondoren, jardun horiek egiteko **konpromisoa berrets dezaten** edo, bestela, testuan aldaketak proposa ditzaten.
- Uneren batean edo bestean Planari buruzko irizpena eman edo txostena egin behar duten **Eusko Jaurlaritzaren erakundeei**, ahal den neurrian ustez agertuko diren **zailtasunak aurreratu ditzaten**.
- **Alderdi politikoei edo legebiltzar taldeei**, testurako **ekarpenak** egin ditzaten.

Batzorde Iraunkorraren 8. bilera. (2004ko urtarrilaren 22an)

Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Planaren **bigarren zirriborro osoa** aurkeztu eta berrikusi da, Batzorde Iraunkorrak orain arte egindako lana Kontseiluaren Osoko Bilkurara eramateko.

Batzorde Iraunkorraren 9. bilera. (2004ko maiatzaren 25ean)

Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Planaren **behin betiko zirriborroa** aurkeztu da eta **gizarte-eragileek igorritako ekarpenak** berrikusi dira. Gizarte-eragile hauei testua bidali zitzaientzen, Batzorde Iraunkorraren zazpigarren bileran hartutako eta Kontseiluaren Osoko Bilkuraren lehen bileran berretsitako erabakiak betez.

Bilera honetan, 2004ko ekainaren 21ean egingo den Kontseiluaren Osoko Bilkuran aurkeztu beharreko **behin betiko zirriborroa** onartu du Batzordeak.

Idazkaritza Teknikoaren osaerari dagokionez, **Ijito Batzordeari** kudeaketaz arduratzeko **hiru erakunde** proposa ditzan eta kudeaketa esleitzeko lehentasunezko hartu beharko liratekeen **irizpideen** inguruko hainbat ekarpen egin ditzan eskatzea erabaki da.

Batzorde Iraunkorraren 10. bilera. (2004ko azaroaren 22an)

Kontseiluaren **Idazkaritza Teknikoaren** kudeaketa **esleitzeko prozesua** berrikusi da, eta emaitzaren berri eman da. Halaber, helburuak eta funtzioak azaldu eta berrikusi dira, eta

Idazkaritza osatzen duten pertsonak aurkeztu dira, arduraldia eta erantzukizunak zehaztuta.

Azaldu denez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko azaroaren 16an onartutako Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Plana bat dator Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2004ko ekainaren 21eko bilkuran onartutako testuarekin, 5. eta 8. Eremuetan **egindako aldaketa** batzuetan izan ezik (hurrenez hurren, gizarteratzearen eta enpleguaren, eta justiziaren eta herri-administrazioen ingurukoak).

Jaurlaritzaren Kontseiluak Planaren garapenarekin batera hartu beharreko neurriak adierazi dituela gogorarazi da: Planaren **urteko jarraipenaren Memoria**, eta egin beharreko **urteko jardun-programaren** aurkezpena, aurrekontuak barne hartuta.

Kontseilua osa dezaketen lan-batzordeei dagokienez, dagoeneko lanean ari den egungo **Ijito Batzordearekin** batera **etxebizitzaren inguruko lan-batzorde** bat eta **kulturaren, partaidetza sozialaren eta elkarbizitzaren inguruko** beste bat sortzea proposatu da.

Bestalde, beste informazio garrantzitsu batzuk berrikusi dira, hala nola Kontseiluaren partaidetza NAGUSI'04 Ferian, 2004ko Getxoko Adierazpena ("Gizarte-politika aurrerakoiak bultzatzeko konpromiso bateratuko akordioa"), erakundeen web-orrietan ijito herriari buruz dagoen informazioa, EAPN sarea Euskadin, eta Secretariado General Gitano Fundazioaren "Epaitu aurretik, ezagutu" kanpaina.

C) IJITO BATZORDEAREN BILERAK

Kontseiluaren barruan dagoen Ijito Batzordea 2004ko ekainaren 21eko Osoko Bilkurak berretsi zuen Kontseiluaren organo gisa. Data horren aurretik, ijitoen erakundeek **Kontseiluarekin eta Planarekin zerikusia zuten zenbait alderdiren definizioari** buruz eta, horrez gain, ijitoen komunitatearekin, nortasunarekin eta kulturarekin, eta komunitate horrek bere ingurunean eta bere baitan agertutako hainbat gairen inguruan hartutako jarrerarekin zerikusia zuten zenbait alderdiri buruz **gogoeta egiteko eta eztabaidatzeko gunea** zen Ijito Batzordea.

2004. urtean, Ijito Batzordeak bost bilera egin ditu eta, horietan, honako gai hauek aztertu dira, bai eta Batzorde Iraunkorrari eta/edo Kontseiluaren beste organo batzuei proposamenak helarazi ere:

- **Kontseiluaren osaera** eta ijitoen komunitateari lotutako erakundeek bertan duten ordezkaritza.
- Kontseiluaren **kontseiluburuordearen** kargua hartzeko pertsonaren izendapena.
- Kontseiluaren **Idazkaritza Teknikoaren** kudeaketaz arduratzeko asmoa duten erakundeek bete beharreko baldintzak, eta baloratu beharreko alderdiak.
- Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoa kudeatuko duen taldearen osaera, eta komeni diren beste baldintza batzuk.
- **EAEko Ijito Komunitatearen Egunaren** ezarpena, Ijito Herriaren Planean aurreikusitako jardun gisa.

- Secretariado General Gitano Fundazioak (**FSGG**) abian jarritako **sentsibilizazio-kanpaina**.
- **Ijito Batzordeak Kontseiluan bete beharreko zeregina**, eta Ijito Herriaren Planaren gauzatzean eta betetzearen jarraipenean izan behar duen erantzukizuna.

4. IJITO HERRIAREN ERABATEKO SUSTAPENERAKO ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO EUSKAL PLANA

289/2003 Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriak, Kontseiluarentzako lehen mandatu gisa, *Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Plana* lantzea ezartzen du. Eginkizun hori, Osoko Bilkurak eskuordetuta, bertatik sortutako **Batzorde Iraunkorrak** hartu du bere gain. Batzorde Iraunkorrek kanpoko aholkulari baten laguntzarekin eta, aurreko idatz zatian adierazi bezala, 2003ko apiriletik 2004ko maiatzera zabaldutako prozesu batean landu zuen Plan hori, eta *Ijito Herriaren Kontseiluaren Osoko Bilkurak* onartu zuen ekainaren 21ean eta, ondoren, **Jaurlaritzaren Kontseiluak** 2004ko azaroaren 16an.

Jarraian gaingiroki deskribatuko ditugun idatz zatietan banatuta dago Plana.

1. IJITO HERRIAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DUEN EGOERARI BURUZKO AZTERKETA

Hona hemen lehen idatz zati honetan azaltzen diren datu garrantzitsu batzuk:

- Datu zehatzagoak eta fidagarriagoak emango dituzten azterlanen zain gaudela, EAEko ijitoen komunitatea **14.000 pertsonak** osatzen dutela esan dezakegu. Zortzi mila Bizkaian bizi dira, eta gainerakoak kopuru berdintsuan banatuta daude Araban eta Gipuzkoan.
- Ijitoen komunitatea **XV. mendetik** aurrera dago gure artean, eta gure gizarte-errealitatearen osagai da.
- Ijitoen komunitatearen errealitateari buruzko **ezagutza zehatza urria** da. Nabaritasun horren aurrean, *kanpotik* egin beharreko azterketa planteatu ordez, adierazgarritzat har daitezkeen ijitoei galdetzea, eskuragarri dagoen bigarren mailako informazio guztia erabiltzea eta, elkarrekin, lehen Plan honetarako **beharrezkoa eta nahikoa izango den informazioa** emango duen egoerari buruzko lehen azterketa bat egitea erabaki da.

Azterketa hori egiteko, honako **lau alderdi** hauek hartu dira kontuan:

1. **Ijito Herriaren nortasuna**, balio garrantzitsuak barne hartuta. Halaber, zenbaitetan ijitoekin lotzen diren ezaugarri negatiboak identifikatu dira.
2. Ijitoen komunitatean **gehien eta gutxien garatuta dauden gaitasunak**.
3. **Ijitoek baliabideak, zerbitzuak eta aukerak** eskuratzeko eta horietan erabat txertatzeko duten aukera, eguneroko bizitzan dituzten oztopoak kontuan hartuta.
4. **Ijitoen eta gizartea osatzen duten gainerakoen arteko harremanak**; izan ere, bazterkeria eta diskriminazioa agertzen dira maiz.

2. AZKEN XEDEAK ETA HELBURU OROKORRAK

Izenak berak adierazten duen bezala, Plan honen bidez lortu nahi diren **azken xedeak** Ijito Herriaren erabateko sustapena eta partaidetza soziala dira, era horretan zuzengabekeriak ordaintzeko eta prozesuak babesteko eta, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko ijitoen bizi-kalitatea, gizarte-ongizatea, gizarteratzea, eta eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko aukera hobetzeko.

HELBURU OROKORRAK

1. Euskal Autonomia Erkidegoko **ijitoen komunitatearen egoerari** eta **ijitoen komunitatearekin egiten diren jardunen ondorioei** buruzko **ezagutza zabaltzea**, alderdi bakoitzean egiten diren **aurrerapenen** adierazleak sortu eta hobetzea, eta **zeharkako ikuspegiak** txertatzea (generoarena adibidez).
2. Ijitoekin lan egiten duten **profesional guztiak ijitoen kulturara hurbiltzea**, era horretan aurreiritziak eta estereotipoak gainditzeko, ijitoekiko harremanak bultzatzeko, eta zerbitzuen kalitatea hobetu ahal izateko.
3. **Oztopoak kendu** eta **ijito guztiak** aukera, baliabide eta zerbitzu orotan **txertatu** ahal izateko beharrezkoak diren eraldaketak bultzatzea.
4. **Praktika egokiak** identifikatzea, alor guztietara **zabaltzeko**.
5. Ijitoen **gizarte-partaidetza** handitzea eta **kulturen arteko elkarbizitza** garatzea.

3. BERARIAZKO HELBURUAK ETA JARDUNAK, EREMUEN ARABERA

Aurreko puntuan planteatutako helburu orokorrak lortu ahal izateko berariazko helburuak eta jardunak biltzen dira atal honetan. Kasu bakoitzean, epeak eta ardurak ezarrita daude. Jardun berak hainbat helburu lortzen lagundu dezakeela onartuta ere, jardun bakoitza ustez lotura handiena duen helburuari egokitu zaio.

Bestalde, **jardun bakoitzaren arduradunak** identifikatu behar dira, baina horrek ez du esan nahi jardun horiek egiteko beste eragile edo erakunde batzuen partaidetza beharrezkoa ez denik.

Berariazko helburuak eta jardunak honako zortzi eremu hauetan antolatu dira:

1. **Kultura:** berariazko 6 helburu, eta helburu horiei dagozkien 11 jardun barne hartzen ditu.

2. **Partaidetza soziala eta elkarbizitza:** berariazko 6 helburu, eta helburu horiei dagozkien 12 jardun barne hartzen ditu.
3. **Hezkuntza:** berariazko 4 helburu, eta helburu horiei dagozkien 18 jardun barne hartzen ditu.
4. **Gizarte-gaiak:** berariazko 5 helburu, eta helburu horiei dagozkien 13 jardun barne hartzen ditu.
5. **Gizarteratzea eta enplegua:** berariazko 2 helburu, eta helburu horiei dagozkien 9 jardun barne hartzen ditu.
6. **Osasuna:** berariazko helburu 1, eta helburu horri dagozkion 9 jardun barne hartzen ditu.
7. **Etxebizitza:** berariazko 2 helburu, eta helburu horiei dagozkien 8 jardun barne hartzen ditu.
8. **Justizia eta herri-administrazioak:** berariazko 2 helburu, eta helburu horiei dagozkien 11 jardun barne hartzen ditu.

4. EBALUAZIOA

Lehen Plana denez gero, bereziki garrantzitsua da jarraipena eta ebaluazioa egitean honako hauek egiteko aukera emango duten prozedurak ezartzea:

- **Aurreikusitako jardunak egin eta helburuak lortu izanaren** berri ematea.
- Azken xedek kontuan hartuta, aukeratutako **helburu eta jardunen koherentzia edo egokitasuna** aztertzea.
- Azken batean, Euskal Autonomia Erkidegoko ijitoen komunitatearen egoeran **gertatutako aldaketak** identifikatzea.

Ondorioz, **prozesu-adierazleak** (hala nola egindako jardueren kopurua, egindako jardunen portzentajea programatutakoen aldean, egindako azterlanen kopurua, edo antzekoak), eta **emaitza-adierazleak** (hala nola ijitoen eskola-arrakastaren gorakada, ijitoen komunitateko erakundeen eta beste erakunde batzuen artean sinatutako akordioen kopurua, salatutako diskriminazio-egoeren kopurua, edo beste antzeko batzuk) erabiliko dira.

Horri dagokionez, azpimarratu beharra dago adierazitako informazioa lortzeko **sexuaren arabera berezitako adierazleak** erabiliko direla, ahal bada. Halaber, kontuan hartu behar da ijito-izaeraren **inolako erregistro administratiborik, erroldarik edo antzekorik** aurreikusten edo proposatzen ez dela, ez Plan honen ebaluazioaren edo gauzatzearen ondorioetarako, ez beste ezein ondoriotarako.

5. IDAZKARITZA TEKNIKOAK

A) AURKEZPENA ETA LAN PROGRAMA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluaren Osoko Bilkura eta batzordeak dinamizatzea eta horietan laguntzea, eta Kontseiluak egin beharreko Planaren jarraipena eta ebaluazioa gauzatzea da Idazkaritza Teknikoaren xedea.

Idazkaritza, beraz, Kontseiluaren zerbitzura dagoen tresna da, eta Kontseiluak berak esleitutako funtzioak ditu, Kontseiluari bere helburuen lorpena errazteko eta ahalbidetzeko.

Idazkaritzaren **helburu orokorrak** honako hauek dira:

- **Ijito Herriaren Kontseiluak** funtzionamendurako eredu eraginkor, errealista eta partaidetza bilatuko duen baten eraikuntzan aurrera egitea.
- Kontseiluko kideek eta, oro har, ijito herriaren sustapenean inplikaturako eragileek Euskal Autonomia Erkidegoan zein Estatuaren gainerakoan eta Europar **garatutako sustapen-neurriei eta esperientzia esanguratsuei buruzko informazio eguneratua** izatea.
- Kontseiluak **Ijito Herriaren Planean barne hartutako jardunen garapenaren eta gauzatzearen mailari, eta helburuen betetze-mailari buruzko txostenak** izatea, era horretan Planaren jarraipenean eta ebaluazioan parte hartu, Planaren ildo estrategikoen eta helburuen garapenari eta gauzatzeari buruzko txostenak eta proposamenak egin, eta, bere garaian, Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztuko dion Plan berri bat landu ahal izateko.

Horretarako, honako **funtzio** hauek bete behar ditu Idazkaritza Teknikoak:

a) Lehen helburuari dagokionez:

- **Kontseiluaren funtzionamendu-prozesua dinamizatzea** eta, ildo horretan, Osoko Bilkuraren zein Batzordeen deialdia eta gai-zerrenda lantzea, parte hartuko duten pertsona guztien ekarpenekin.
- Osoko Bilkuraren eta Batzordeen bileren **aktak** idaztea.
- **Eskaeren Oharpen Liburua** eguneratua izatea.
- **Kontseilukideen** eta horien ordekoen izendapena, eta berrikuntzak bermatzea.
- Batzordeetan edo Osoko Bilkuran **prestatzen diren dokumentuak** lantzea.
- **Kontseiluaren proposamenak** kudeatzea, gauzatu daitezten.

a) Bigarren helburuari dagokionez:

- Batzordeek edo Kontseiluak beren lana garatzean eskatzen edo behar dituzten **materialak eta dokumentuak** ematea.
- Dokumentazioa **antolatzea eta artxibatzea**.
- **Txostenak** lantzea.

c) Lehen, bigarren eta hirugarren helburuei dagokienez:

- Kontseiluaren jardunei buruzko informazioari eta Ijito Herriaren Planaren garapenari lotutako guztian, **Sailaren web-orria** eguneratuta mantentzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan, Estatuaren gainerakoan eta Europan Herri Administrazioek, ijitoen erakundeek eta ijitoen aldekoek, eta beste gizarte-eragile batzuek ijito herriaren inguruan garatutako **araudiari, programei eta jardueri buruzko informazioa** biltzea.

Eta honako **produktu** hauek lortuko dira:

a) Lehen helburuari dagokionez:

- Osoko Bilkuraren eta Batzordeen bileren **aktak**.
- Kontseiluaren bileren **gai-zerrenda**, parte hartzen duten pertsona guztien ekarpenekin.
- Eskaeren **Oharpen Liburua**.
- Batzordeetan edo Osoko Bilkuran **prestatzen diren dokumentuak**, landuta.

a) Bigarren helburuari dagokionez:

- Dokumentazioaren **artxiboa**.
- **Produktu dokumentalak**: laburpenen buletinak eta aipamen bibliografiko laburrak.
- Kontseiluari eta Batzordeei **ekarpen gisa emandako materialak eta dokumentuak**.
- Kontseiluak planteatzen dituen eta Batzordeek eta Osoko Bilkurak orientabideak eta proposamenak ezartzeko oinarri izan daitezkeen **txostenak, bertan egindakoak** eta egoera jakin batzuei, praktika egokiei eta abarri buruzkoak.

a) Hirugarren helburuari dagokionez:

- Informazioa biltzeko **tresnak**.
- Ijito Herriaren Planaren jarraipena egiteko **adierazle-sistema eta euskarri informatikoa** (datu-basea).
- Ijito Herriaren Planaren **urteko jarraipenari buruzko txostena**.
- Ijito Herriaren Planaren **azken ebaluazioari buruzko txostena** (2005etik aurrera).

- **2005erako Jardun Programa**, Planean aurreikusitako neurrien gauzatzea gaineratuta eta aribideko urterako eguneratutako neurriak barne hartuta.

d) Hiru helburuei dagokienez:

- Sailaren **web-orrira** iraulitako informazioa.

B) EGINDAKO EKINTZAK

- Kontseiluaren **Osoko Bilkuraren eta Batzordeen funtzionamendua dinamizatzeko**:
 - Idazkaritza Teknikoaren **ezaugarriak** eta **lan-programa** adostu dira Sailarekin eta Kontseiluarekin.
 - Kontseiluaren funtzionamendurako **sistemen eta tresnen** proposamen bat aurkeztu da, ikuspuntu administratiboan oinarrituta.
 - **Kontseiluaren funtzionamenduari** lotutako funtzio iraunkorrak, Osoko Bilkurarenak zein Batzordeenak, gauzatu dira: deialdiak (gai-zerrenda barne hartuta), aktak, materialen ekarpena, Batzordeetan edo Osoko Bilkuran prestatzen diren dokumentuak lantzeko zeregina, bilera egingo den lokalaren erabilgarritasuna.
 - Lan Batzordeen **funtzionamendu-arauegia** landu da.
 - Idazkaritza Teknikoa aurkezteko eta ekarpenak jasotzeko, **elkarrizketa-txanda** bat egin da ijitoen erakundeekin eta ijitoen aldekoekin.
 - Etxebizitzaren arloko eta kulturaren, partaidetza sozialaren eta elkarbizitzaren arloko **lan-batzordeak** abian jartzeko **harremanak** izan dira.
- Ijitoek Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan eta kanpoan bizi duten errealitateari buruzko **dokumentazioaren artxiboa** abian jartzeko eta antolatzeko:
 - Ijitoek Euskal Autonomiaren barruan eta kanpoan bizi duten errealitateari buruzko **informazio-iturriak** eta sarbideak identifikatu dira: kontsultak, bisitaldiak...
 - Aldizkako **argitalpen** interesgarriak definitu dira, eta harpidetza egin da.
 - Eskuragarri dagoen **dokumentazioa artxibatze**ko beharrezkoa den egitura abian jarri da.
 - Informazioaren tratamendurako, hau da, informazioa sistematizatzeko eta hainbat euskarritan (papera, web-orriak...) eta formatutan (aipamen bibliografikoak eta laburpenen buletinak, Kontseiluaren Batzordeentzako eta Osoko Bilkurarentzako txostenak) iraultzeko **sistemak eta tresnak** definitu dira.
 - **Aipamen** bibliografikoak eta laburpenen buletinak landu dira.
 - **Prentsan** Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriari buruz agertu diren aipamenak bildu dira.
 - **Sailaren web-orrian** irauli beharreko edukiak eta iraultetarako eta kontsultarako prozedurak proposatu dira. Horri dagokionez, irauli beharreko dokumentazioa honako hau izan daiteke: Kontseiluaren aktak, Idazkaritzak bildutako

dokumentazioa, bertan egindako aipamen bibliografikoak eta laburpenen buletinak, Kontseiluak egindako txostenak, EA Eren barruko eta kanpoko ijito herriari buruzko askotariko informazioa, eta antzekoak.

- **Ijito Herriaren Planaren jarraipena** egiteko:
 - Planari lotutako eragileek jasotako datuen antolamendurako, tratamendurako eta ustiapenerako **datu-base** bat landu da.
 - **Planaren itzulpenari, edizioari eta argitalpenari** lotutako gaiak kudeatu dira.
 - Planaren jarraipena egiteko **solaskide eragileak** identifikatu dira Jaurlaritzaren Sail bakoitzean eta Planaren garapenean inplikaturako erakunde bakoitzean.
 - 2005eko Jardun Plana lantzeko **informazio-bilketarako tresnak** landu dira.

- Amaitzeko, beste ekintza batzuk:
 - Ijitoen komunitateari lotuta dauden eta Kontseilua osatzen duten erakundeek 2004ko urrian BECen egindako **NAGUSI'04** Ferian izan duten agerpena eta partaidetza kudeatu da.
 - **Direktorio** bat landu da argitalpenak, dokumentazioa eta abar bidaltzeko, Kontseiluarekin zerikusia dutenak (hala nola Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Plana) zein, oro har, ijitoen komunitatearekin zerikusia dutenak (hala nola EHU-UPVren Lan Harremanetako Unibertsitate Eskolaren Lan Harremanak aldizkariaren ale monografikoa).
 - Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Plana aurkeztu da Kataluniako Ijitoen Elkartearen Federazioak (**FAGIC**) antolatutako eta 2004ko azaroaren egindako Kataluniako Ijito Kulturaren XII. Jardunaldien esparruan.